



Gure proiektu proposamena itsasoaren gainazalean kokatuta dagoen jatetxe bezala laburtu genezake, baina hori baino askoz gehiago da. Gure enpresak esperientzia paregabe bat eskaintzen du: Mediterranearen itsaso barnean egonda, frantziar eta espainako ekialdeko kostaldeetatik gertu, aisialdi eta gastronomia zerbitzuetaz gozatzea.

Gure instalazioetan, jarduera nagusia den jatetxea aurkitzen da, Lamprea izenekoa. Bertan Mediterranearen produktu freskoekin egindako janari berritzaileak eskaintzen ditugu, bezeroak itsaso barnean aurki dezakeen ikuspegiak liluratzen den bitartean. Horretaz gain, hainbat ekintza antolatzen dira bezeroarentzako esperientzia erabatekoena izan dadin; hala nola: urpean igeri egiteko eta snorkel ikastaroak, hurbileko irletara bisita gidatuak, solarium-a, janari osasungarriko tailerrak, hainbat ur-kirol (surfa, windsurfa, kayak, padelsurfa...), etabar.

